



**ondarru**  
*bixi-bixi*

## ANDRA MARI JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA 2024

### OINARRIAK:

1. Edonork har dezake parte eta gaia librea da. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du.

2. Kartelaren ezaugarriak:

Teknika: edozein.

Neurria: A-3

Formatoa: euskarri gogorra edo papera.

Titulua: Kartelak ondorengoak jaso behar ditu:

- **2024ko ONDARROAKO JAIK** eta letra txikiagoan, **Andra Maixak**
- **Abuztuaren 11tik 17ra**

3. Kartelak noiz eta non aurkeztu:

Epea: 2024ko uztailaren 12a arte, 13:00ak baino lehenago

Tokia: Udal erregistro orokorra edo Ondarroako Egoitza Elektronikoa

Postaz aurkezteko helbidea: Ondarroako Udala - Jaietako kartel-lehiaketa 2024 - 48700 Ondarroa

4. Kartela zer-nola aurkeztu

Kartelek ez dute jasoko egilearen izenik, eta kartazal zarratuan sartuta aurkeztuko dira; kartazalean soil-soilik lema edo goitizena jarriko da.

Kartazal horren barruan beste kartazal bat sartuko da eta horren kanpoan lema edo goitizena jarriko da, eta barruan egilearen izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren kopia.

5. Sariak

1. saria: 600 euro (saria ordaintzerakoan dagokion zerga araudia aplikatuko da).

6. Epaimahaia

Ondarroako Udalak aukeratuko du kartelik onena sarituko duen epaimahaia. Aurkeztutako lanek ez badute behar den besteko kalitaterik, epaimahaiak erabaki dezake saririk ez ematea.

7. Udalak eskuratuko du saritutako kartelaren jabetza, eta eskubidea izango du argitaratzeko, zabaltzeko eta abar. Hortaz gain, udalak eskumena izango du, beharrezkoa ikusiz gero, "QR" edo antzeko elementuak kartelean txertatzeko, beti ere kartelaren konposizioa aldatu gabe.

8. Saritu gabeko kartelak egileen esku izango dira abuztuaren 6a arte, 14:00ak baino lehenago.

9. Lehiaketan parte hartzen dutenek ontzat hartzen dituzte aipatu arau guztiak.